



GEZURREZKO NATURA HILA



DBH 4

FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Marinella Terzi

IZENBURUA: Gezurrezko natura hila

ILUSTRATZAILEA:

ITZULTZAILEA: Joxe Antonio Sarasola

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Amorebieta-Etxano, Ibaizabal, 2013

ORRIALDE KOPURUA: 166

BILDUMA: Ameslari

ISBN: 978-84-8394-784-5

ADIN TARTEA: 14 urtetik aurrera

IRUZKINA

Erraz irakurtzen den liburua da, oso erritmo azkarra baitu. Bi konturen inguruan aritzen da nagusiki: batetik, Ingridek bere urtebetetze egunean jaso duen opari berezia dago, birramonaren egunerokoa; eta bestetik, Ingrid eta bere gelakide Jacoboren arteko harremana, adiskidetasunetik maitasunera jauzi egiteko zalantzan.

Protagonista Ingrid da, Madrilen bizi den neska bat. Argi du, ustez, askea izan nahi duela eta ez duela adiskidetasuna beste loturarik nahi. 16 urte bete dituen egunean, bere birramonaren, Carmen Beltránen, egunerokoa jaso du, familiako tradizioa baita hau oparitzea. Eguneroko hori irakurri ahala, ordura arte ez zekizkien gauzak jakingo ditu, bai bere familiari buruz eta bai XX. mende hasierako emakume artistei buruz.



Narrazioak bikotekideen arteko harremanei buruzko hausnarketa egiteko bidea ematen du. Liburuak pertsonaien ezaugarri psikologikoen berri ematen du, eta oso ongi islatzen du, batez ere birramona zein garaitan bizi zen eta garai hartako ezaugarriak.

14 kapitulutan dago banatua, eta gehienetan egunerokoaren berriak eta Ingriden gorabeheren berriak tartekatzen ditu.

IKASLEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

Gaiak: Genero berdintasuna; Artearen historia; Emakumeak eta artea; Bikotekideen arteko harremanak; Espainiako Gerra Zibila.

Liburua aitzakia perfektua da artearen historia arakatzeko, emakume artistak ardatz hartuta. Hala eginez, liburuko gai guztiak agertuko dira, genero berdintasuna eta bikote harremanak barne.

Euskal emakumeetatik hasia komeni: Rosa Bustintza, Bizenta Mogel, Mayi Ariztia, Menchu Gal, Asun Balzola, Dora Salazar, ...

Eta ondoren munduko beste lekuetakoak: Gentileschi, Khalo, Cassat, Potter, Highsmith, Larsson, Carrington,...

Zerrenda nahi hainbeste luza daiteke, interneti esker. Agian merezi du kantitateari baino garrantzi gehiago ematea egieetako bati. Esaterako Frida Khalo eta bere senar Diego de Riverak mami asko eman dezake, bai euren lana ederresteko, bai euren harremana ezagutzuz proposatutako gai nagusiak aztertzeko.